



Zubikoa kiroldegia, igerilekuaren irekiera 2021/02/05 prentsa oharra

Zubikoa kiroldegiaren Ordutegia:

- Asteko egunak 7:30/21:00
- Larunbatak 9:00-13:30 / 15:00-19:30
- Igande eta jai egunak: 9:00-13:00

JOAN-ETORRIAK seinaleztatuta daude.

Kasu egin kartel informatiboei eta instalazioko langileen oharrei.

Gogoratu: joan etorrietan eta aldagelatan arin ibili eta errespetatu erabilera orduak.

Web orriaren bidez erreserbak egiteko aukera dago:

<https://zubikoakiroldegia.oñati.eus/>

Webgunean, erregistratu, eta ahal den guztietan erreserba on-line egitea gomendatzen da. Lortzerik ez bada kiroldegiko harreran edo telefonoz aukera dago erreserbak egiteko.

Webgunera sartzeko bi aukera daude:

- Pasahitza izan: erabiltzailea (edo NAN) eta pasahitza tekleatu behar da identifikatzeko (ondoren, balioztatu botoiari eman). Menu pribatua agertuko da ezker aldean.
- Pasahitzik ez izan (edo ahaztu izan): erabili PASAHITZA LORTU botoia. Datu pertsonal batzuk eskatuko dira, eta identifikatu ondoren, norberaren pasahitza erregistratu ahal izango da.

ERRESERBA SISTEMA

- **Erreserba egitea nahitaezkoa da**
- **Abonatuak soilik** izango dute aukera erreserbatzeko.
- **Kirol Txartela** erakutsi beharko da sarreran.
- **Telefonoz** edo **online** egingo da.
- **Igerilekua erabili ondoren, erreserba egiteko aukera** egongo da.
- **Hiru eguneko epearekin** egin ahal izango da.
- **Ezingo da bi egun jarraian igerilekua erabili.**
- **Plaza librerik badago, egunean bertan** egin ahal izango da erreserba.
- **Familia-erreserbak igerileku txikira** bideratuko dira. **Familia-buruak** egingo du **erreserba**.
- **Dutxak banaka** erabiliko dira.
- **Erabilgai daudela adierazten duten eserlekuak eta dutxak erabili.**
- **Etengabe aireztatuko dira instalazioak**; ireki aurretik, erabiltzen diren bitartean eta itxi ondoren.
- Osasun agintariek hartzen dituzten **neurrien arabera egokituko** dira erabilera-baldintzak.

ADI

- **Erreserba** egin ondoren, **erabiliko ez bada, lehenbailen baliogabetu** beharko da. Erreserba **behin baino gehiagotan baliogabetu gabe geratzen bada, ezingo da bi astetan erreserba gehiagorik egin.**
- **Maskara erabiltzea nahitaezkoa da**, igerileku barruan eta dutxan izan ezik.
- Uneoro erabiltzaileen arteko **segurtasun-distantzia errespetatu.**
- **Aldageletan ezin dira gauza pertsonalak utzi. Takilak erabiltzea derrigorrezkoa da (kandadua behar da).**
- **Erabilgai daudela adierazten duten takilak erabili.** (gometsa berdeak dituzte)

TXANDAK

- **Ordubetekoak** dira, instalazioko itxiera-orduak izan ezik, txanda horiek 45 minutukoak izango dira.
- **Aldagelara ordu laurden lehenago** sartzeko aukera egongo da (Kiroldegiaren irekiera-orduetan izan ezik).

ALDAGELAK ETA DUTXAK aforo mugatuarekin

- Osasun agintariek hartzen dituzten **neurrien arabera egokituko** dira erabilera-baldintzak.
- **Dutxak banaka** erabiliko dira.
- **Erabilgai daudela adierazten duten eserlekuak eta dutxak erabili.**
- **Etengabe aireztatuko dira instalazioak**; ireki aurretik, erabiltzen diren bitartean eta itxi ondoren.

Abonatu txartelaren banaketa eginda dago baina oraindik zenbaitzuk iritsi gabe izango dira.
Gogoratu harreraren txartela derrigorrez pasa behar dela.